


BIZITEGI ERAIKINA
B MAILA**SAN MARTZIAL 26**

Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1900 eta 1916.

Deskribapena

Ettxadiaren bizitegi zatian ale bakarreko esku hartzea denez, eraikuntzak nolabaiteko monumentu izaera hartzen du. Hiria bilbean aldaera erakusten duelako ere nabarmentzen da. Izan ere, angelua osatuz plaza txiki bat aurkituko dugu banketxearen sarreraren parean eraikinaren fatxadari esanahia emanez. Gaur egungo urbanizazioa Elizaldek 1950ean egindako proiektuari dagokio. Bi obrak –etxebizitzaren eraikina eta banketxea– Ramon Cortazar arkitektoarenak dira baina estilo diferentean egin ziren. Azken urteetan Banco Guipuzcoanon eraberritze lan orokorrak egin dituzte. Lan horien ondorioz, kanpoaldeko antzinako erlaitzean kobrezko estaldura ikus daiteke. Etxebizitzaren proiektua 1916koa da eta 1921ean amaitu zituzten eraikitzen, Urcolak eta Eceizak proiektatutako antzinako Hotel du Palais-en zati bat okupatu. Hartzeko fatxadak eta hormigoizko egitura ditu. Behe oina eta bost goi oin ditu, hiru kantoiko etxeen artean eta bi mehelin artean, guztira bost. Eskailera nukleo bakoitzeko etxebizitza bat edo bi ditu. Etxebizitzek sakonera eta azalera handia dute tarteko patio txikien laguntzaz. Etxadia bertako fatxadetan apaingarri txiki ugari daudelako nabarmentzen da, eragin frantsesa duen eklektizismo baten barruan, barra-barra apainduak baina kalitatezko materialekin. Eraikinaren goialdean apaindurako hainbat elementu aurki daitezke. Horien artean zeramikako estaldurak nabarmentzen dira. Merkataritza etxabeetako zenbait euren neurriengatik eta akabera aberatsengatik nabarmentzen dira; ataria bereziki interesgarria da bere eraikuntzaren kalitatearen eta konfigurazioaren ikuspegitik.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitektureko proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berriazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeriak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak, apaingarri kareberriak, goialdean zeramikazko estaldurak, merkataritza etxabeen eta atariaren harrizko estaldurak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:

* Jatorrizko dorreak, kupulak eta mantsardak mantentzea.

* Ataria jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.

* Hondarribia 1, Getaria 2, 2 bikoiztua eta 2 hirukoiztuarekin esku hartze unitate bat osatzen du, Plan Berezi honen Ordenantza Orokorraren 17. artikuluan ezarritako baldintzekin.

D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, aurreko aurreikuspenen aplikazioaren emaitzazkoen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.